Eustat
EUSKAL ESTATISTIKA ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE ESTADÍSTICA

Kapital Sozialaren gaineko Inkestaren mikrodatuak 2007

Fitxategiaren deskribapena

AURKIBIDEA

1. Sarrera 2
2. Aldagaiak hautatzeko irizpideak 2
2.1 Isilpekotasuna gordetzeko irizpideak 2
2.2 Kalitatearen inguruko irizpideak 3
2.2.1 Egokitasuna 3
2.2.2 Alderagarritasuna 3
2.2.3 Zehaztasuna eta fidagarritasuna 3
3. Erregistroaren diseinua 4
4. Adierazle sintetikoak 5
5. Aldagaien deskribapena 5
I. ERANSKINA 6

1. Sarrera

Kapital Sozialaren gaineko Inkestaren (aurrerantzean 2007ko KSI) ondoriozko fitxategia mikrodatuak aztertu eta tratatzean eskarmentua duten erabiltzaileen artean zabaltzen den produktua da. Formatu horrek balio erantsia eskaintzen dio erabiltzaileari; hau da, ohiko formatuko taulen, argitalpenen eta txostenen ondorioz orain arte ezin izan ditu datuak ustiatu eta aztertu, baina formatu berriari esker aukera hori izango du.

Txosten honetan mikrodatuen fitxategi estandarra deskribatzen da, sailkatzeko aldagai nagusienekin eta inkestaren banako galdesortako erantzunen bidez ateratako adierazle sintetikoekin. Inkestan jasotako gaikako arloen arabera egituratu da fitxategia. Zehazki, kapital soziala harremanei eta parte hartzeari lotutako dimentsio multzoa da, eta horietako batzuk honakoak dira: senide eta lagunen sare sozialak, konfiantza pertsonengan eta erakundeengan, gizarte parte hartzea eta lankidetza, informazioa eta komunikazioa, kohesio soziala eta gizarteratzea, eta zoriona eta osasuna.

2. Aldagaiak hautatzeko irizpideak

Aldagaiak hautatzean, isilpekotasuna gordetzeaz gainera kalitatea zaindu da. Hona hemen xehetasunak:

2.1 Isilpekotasuna gordetzeko irizpideak

Informazioa ematen dutenekin sekretu estatistikoa betetzea da estatistika jardueraren premisa nagusiena. Beraz, sekretu estatistikoak babesten duen banakoei buruzko informazioa modu anonimoan zabaldu behar bada, ezin da ikusi estatistika unitateen identitatea, ezta zabaldutako aldagaien edukiaren edo desagregazioaren bitartez ere.

Babes hori bermatze aldera, hain zuzen, zabaldu beharreko mikrodatuen fitxategiari honako murrizketak aplikatu zaizkio:

- Ez dira, inola ere, sartzen zuzeneko identifikaziorako aldagaiak edo datu pertsonalak (NAN, izena, abizenak, helbideak, telefono zenbakiak, etab.).

- Banaketa geografiko handiena probintziako hiriburua da, baita udalerriaren tamainaren adierazle bat ere.

- Inkesta bete duen pertsonaren adina bost urteko taldeetan sartzen da, aldagai demografiko honek eman dezakeelako identifikatzeko aukerarik argiena.

- Familiaren eta gizabanakoen ezaugarriei buruzko aldagaien taldekatze estandarrak erabiltzen dira, unitate “bereziak” (adib.: familia oso ugariak, familia-tipologiak, gizarte-klaseak,…) ez identifikatzeko, zabalkundean erabilitako sailkapenak ahal den gehien errespetatuta.

- Galdesortan jasotako datuak erabilita atera dira adierazle sintetikoak, baina ez dira jatorrizko itemak zuzenean sartu.

2.2 Kalitatearen inguruko irizpideak

Produktu estatistikoetan aztertu eta tratatu beharreko beste alderdi bat datuen kalitatea da. Europako Estatistika Bulegoak (EUROSTAT) sustatutako faktore jakin batzuen arabera defini daiteke produktu estatistikoaren kalitatea: egokitasuna, fidagarritasuna eta zehaztasuna, egokitasuna eta zehaztasuna, koherentzia eta alderagarritasuna, erabilerraztasuna eta argitasuna.

Kasu honetan, mikrodatuen fitxategian sartu beharreko aldagaiak hautatze aldera, informazioaren egokitasuna (datuek azken erabiltzailearentzat duten garrantzia edo interesa), alderagarritasuna eta zehaztasuna hartu ditugu kontuan.

2.2.1 Egokitasuna

Ongizatea, ingurunearekiko poztasuna eta parte hartu eta komunikatzeko gizarte eragileekiko elkarreragina gai hain garrantzitsuak dira non gero eta interes handiagoa sortzen duten erabiltzaile eta analisten artean. Gainera, konfiantzazko giroan parte hartzen bada ekonomia eta gizarte arloetan, gizarteak garapen pertsonala, soziala eta ekonomikoa izan dezake. Gero eta informazio gehiago eskatzen denez, aldagai jakin batzuk hautatu dira honako irizpide hauek aintzat hartuta:

- Gehien erabiltzen diren aldagai sozio-demografikoak banakoen sailkapenean erabiliz gero, analisiak egiteko aukera handiagoa izaten da. Horrez gain, inkestak jorratzen duen gaiari buruz interes eta sentsibilitate berberak dituzten taldeak edo segmentuak aurkitzeko ere erabilgarria izaten da.

- Sartu diren adierazle sintetikoen bidez, agregazio-indizeak, batezbestekoak eta intereseko biztanle-multzoen araberako banaketen analisia egin eta atera daitezke. Input bezala ere erabil daiteke kapital sozialaren eta haren dimentsioen (osasuna, ongizatea, garapen ekonomikoa...) arteko harremanak aztertzeko ereduetan, eta Euskal AEko kapital sozialaren zenbatespen ekonomikoak egin daitezke.

Inkestak ematen duen informazioarekin, erakundeek ikertu diren dimentsioei lotutako planak diseina ditzakete.

2.2.2 Alderagarritasuna

1 eta 10 arteko neurketa-eskalan indize sintetikoak sartzen direnean, ateratzen diren agregatuak antzeko azterketak egiten dituzten geografia eremuetakoekin konpara daitezke. Horrez gain, aldagai sozio-demografikoetan erabiltzen diren sailkapen estandarrek Euskal AEko edo autonomia-erkidegotik kanpoko eremuak eta biztanle-taldeak konparatzeko aukera ematen dute.

2.2.3 Zehaztasuna eta fidagarritasuna

Laginketa bidezko edozein inkestatan muga nagusiena da laginaren unitateetarako informazioa bakarrik dagoela, eta ez xede diren biztanle guztientzako informazioa. Inkestako laginaren diseinuak argituko du jasotako informazioarekin zein ordezkaritza maila lortu den.[1]

Diseinu hori oinarritzat hartuta, autonomia-erkidegoan eta lurralde historikoetan inkestak izan dituen zenbatespen nagusietarako laginketa-errorea kalkulatzen da, orientazio moduan:

[1] Inkesta honen laginaren diseinuari buruzko informazioa fitxa metodologikoan kontsultatu daiteke, EUSTATen web-orrialdean: http://www.eustat.es/document/en%5Fcapital%5Fsocial%5Fc.asp

Aldakuntza-koefizienteak (%) kapital sozialaren adierazle nagusietarako, 15 urteko edo gehiagoko biztanleen artean.

	Euskal AE	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
Lagun sarearen homogeneotasuna				
Handia	1,7	3,2	2,6	2,7
Hala-holakoa	3,4	6,9	4,9	5,8
Txikia	2,9	5,5	4,4	4,5
Konfiantza orokorra				
Handia	2,8	5,5	4,3	4,2
Hala-holakoa	1,4	2,8	2,1	2,4
Txikia	5,0	9,8	7,2	8,6
Parte-hartzea hauteskundeetan				
Handia	1,0	1,9	1,5	1,8
Hala-holakoa	7,7	15,9	12,7	11,3
Txikia	3,4	6,8	5,3	5,3
Informazio-iturrien aniztasuna				
Handia	1,4	3,3	2,1	2,4
Hala-holakoa	2,7	4,8	4,3	4,3
Txikia	5,3	8,4	8,4	9,2
Kohesio soziala				
Handia	3,1	6,4	4,6	4,8
Hala-holakoa	1,1	2,1	1,7	1,9
Txikia	8,4	15,5	13,5	13,4
Segurtasuna				
Handia	1,0	2,8	2,2	2,2
Hala-holakoa	3,1	4,5	3,4	3,9
Txikia	15,5	23,1	13,0	17,3
Zoriontasuna eta osasuna				
Handia	1,4	2,0	1,6	1,5
Hala-holakoa	2,3	6,0	4,5	5,4
Txikia	9,7	29,0	21,0	31,4

Unitatea: Ehunekoa

Laginketa-errorearen maila onargarriak % 15etik beherako aldakuntza-koefizientearen balioak onartzen dituela kontuan hartuz gero, inkestak autonomia-erkidego eta lurralde historiko mailetan zehaztasun bikaina lortu duela esan dezakegu, batez ere biztanleen artean nagusi diren adierazle mailetan. Dena den, fitxategi honetako aldagaien artean gerta daitezkeen gurutzaketekin lortutako zehaztasunak ez du bermatzen datu horien bidez lagin ale gutxi batzuetan (30 edo gutxiago) egiten diren ustiaketa edo azterketetan adierazgarritasun estatistiko hori lortuko denik. Beste modu batera esanda, emandako informazioaren bidez egindako azterketa edo analisien ondorioak azken erabiltzailearen erantzukizuna dira.

3. Erregistroaren diseinua

2007ko KSItik ateratako mikrodatuen fitxategiak testu formatua du, zutabe finkoak ditu eta inkestak bildu dituen gaien arabera dago egituratuta. *Aldagai mota, inguruabarrak eta fitxategian duten kokapen zehatza Diseño_registro_ECS_2007.xls izeneko Excel fitxategian (mikrodatuen fitxategiari eransten zaio) deskribatzen dira.*

Mikrodatuen fitxategia Microsoft Excel 2003 formatuko bertsioan ere badago.

4. Adierazle sintetikoak

Inkestan kapital sozialaren dimentsio ezberdinetarako jasotzen den informazioa laburtzen dute adierazle sintetikoek. Adierazleak 1 eta 10 arteko eskalan neurtu dira, eta galdetzen diren alderdien gaineko sentsibilitatea eta kontzientziazioa neurtzen dute. Adierazle horiek sortzeko modua eta kalkulurako oinarritzat hartu diren aldagaiak Eustaten webgunean eragiketak duen kontzeptuen eta definizioen atalean deskribatu dira.

http://www.eustat.es/estadisticas/idioma_c/tema_362/opt_0/tipo_5/ti_Encuesta_de_Capital_Social/temas.html

5. Aldagaien deskribapena

Kodetzearen literalak sartu dira, baita fitxategian jaso diren aldagaietako bakoitzean erabilitako sailkapenak ere. Joan I. eranskinera.

I. ERANSKINA

Microdatos_ECS_2007.txt FITXATEGIAREN DESKRIBAPENA

NUMC – Erregistroaren identifikatzailea

TERR – Egoitza dagoen lurralde historikoa
01 Araba
20 Gipuzkoa
48 Bizkaia

MUNR – Egoitza dagoen udalerria
020 Bilbo
059 Vitoria-Gasteiz
069 Donostia
000 Gainerako udalerriak

TMUN – Udalerriaren tamaina
1 100.000 biztanletik gorako udalerriak
2 20.000 - 100.000 biztanle arteko udalerriak
3 20.000 biztanletik beherako udalerriak

SEXO – Aukeratutako pertsonaren sexua
1 Gizonezkoak
6 Emakumezkoak

EDADRR – Aukeratutako pertsonaren adina
01 15 - 19 urte
02 20 - 24 urte
03 25 - 29 urte
04 30 - 34 urte
05 35 - 39 urte
06 40 - 44 urte
07 45 - 49 urte
08 50 - 54 urte
09 55 - 59 urte
10 60 - 64 urte
11 65 - 69 urte
12 70 - 74 urte
13 75 - 79 urte
14 80 urte edo gehiago

LNACR – Aukeratutako pertsonaren jaioterria
1 Araba
2 Bizkaia
3 Gipuzkoa
4 Espainiako gainerako herrialdeak
5 Munduko gainerakoak

NACIR – Aukeratutako pertsonaren naziotasuna
1 Espainiarra
2 Espainiarra eta beste bat
3 Atzerritarra

ECIVR – Aukeratutako pertsonaren egoera zibila
1 Ezkongabea
2 Ezkondua
3 Alarguna, legez banandua edo dibortziatua

TIPFR – Aukeratutako pertsonaren familia mota
1 Kide bakarreko familia
2 Bikotea bakarrik
3 Seme-alabaren bat duen bikotea
4 Aita edo ama bakarrik, seme-alabaren batekin
5 Beste mota bat
6 Kolektiboa

TFAM – Aukeratutako pertsonaren familiaren tamaina
1 Pertsona 1
2 2 lagun
3 3 lagun
4 4 lagun
5 5 pertsona edo gehiago

CLASER – Aukeratutako pertsonaren gizarte maila
1 Goi maila eta erdi-goi maila
2 Erdi maila
3 Erdi-behe maila
4 Behe-mailakoa

NIVIR – Aukeratutako pertsonaren heziketa maila
1 Analfabetoa eta lehen mailako ikasketaduna
2 Profesionala
3 Bigarren mailako ikasketaduna
4 Unibertsitaria

IDENTR – Aukeratutako pertsonak inkesta betetzeko erabili duen hizkuntza
1 Euskara
2 Gaztelania eta beste batzuk

SPRO1R - Aukeratutako pertsonaren lanbide egoera
1 Enpresaburua
2 Autonomoa eta familia laguntzak jasotzen dituena
3 Soldatako finkoa eta kooperatibista
4 Behin-behineko soldatakoa

PROF1R – Aukeratutako pertsonaren lanbidea
1 Zuzendaria eta profesionala
2 Laguntza teknikaria
3 Administraria
4 Zerbitzuetako langilea
5 Nekazaritza eta industriako langile gaitua
6 Makina operadorea
7 Gaituta ez dauden langileak

RACT1 – Aukeratutako pertsonaren jarduera-adarra
1 Nekazaritza, abeltzaintza, ehiza, basogintza eta arrantza
2 Industria eta energia
3 Eraikuntza
4 Merkataritza eta konponketa, ostalaritza eta garraioa
5 Finantza eta enpresa zerbitzuak, higiezinei lotutako jarduerak
6 Bestelako zerbitzuak

RELAR – Aukeratutako pertsonaren jarduerarekiko lotura
1 Landuna
2 Langabetua
3 Erretiratua
4 Pentsioduna eta beste batzuk
5 Ikaslea
6 Etxeko langilea

REDAMP – Sare zabalaren tamaina

0 - 85

REDPRO – Hurbileko sarearen tamaina

0 - 85

RELPER – Harreman pertsonalak

0 - 10

REDHOM – Sare homogeneoa

0 - 10

AYUFIN – Finantza laguntza

0 - 10

AYUSAL – Osasun laguntza

0 - 10

AYUEMO – Emozio-laguntza

0 - 10

AYUPRE – Emandako laguntza

0 - 10

AYUREC – Jasotako laguntza

0 - 10

CONGEN – Konfiantza orokorra

0 - 10

CONPRO – Lanbideekiko konfiantza

0 - 10

CONRED – Sareekiko konfiantza

0 - 10

RECIPR - Elkarrekikotasuna

0 - 10

CONINS – Erakundeenganako konfiantza

0 - 10

COOP1 – Auzokoen laguntza ura/elektrizitatea falta izan denean

0 - 10

INDEP1 – Askatasun pertsonala

0 - 10

INTPOL – Interesa politika gaietan

0 - 10

PARPOL – Parte-hartzea hauteskundeetan

0 - 10

PARSOC – Parte-hartze soziala eta politikoa

0 - 10

INFLUE – Eragin pertsonala

0 - 10

ASOVOL – Elkarteetan boluntario izatea

0 - 10

ASOECO – Elkarteek ekarpen ekonomikoa egitea

0 - 10

ASOPER – Elkarteetako kide izatea

0 - 10

ASOPAR – Elkarteetan parte hartzea

0 - 10

INFPOL – Informazio politikoa

0 - 10

REDVIR – Sare birtualak

0 - 10

MEDCOM – Komunikabideak

0 - 10

FUETOT – Informazio-iturriak

0 - 10

PROXIM – Hurbiltasun sentimendua

0 - 10

CONFLI – Hautemandako gatazkak

0 - 10

PRODIF – Ezberdintasunen ondoriozko arazoak (auzoan edo auzokoekin)

0 - 10

COHSOC – Kohesio soziala

0 - 10

AGRESI - Erasoak

0 - 10

PROSEG – Segurtasun arazoak

0 - 10

SEGURI - Segurtasuna

0 - 10

CORRUP - Ustelkeria

0 - 10

SATISF - Bizitzak eta diru-sarrerek ematen duten poztasuna

0 - 10

FELSAL - Zoriontasuna eta osasuna

0 - 10

ELEV – Jasokari pertsonala